

BIZI IKASGAIA

- Ondo. Ondo! Oso ondo bihotza! Segi horrela!

Atzean geratzen ari naiz. Berari begira. Urruntzen ari zait. Bera oraindik ez da konturatu. Ni bai, egoeraz haratago jabetzen ari naiz. Bizitza osoa ikusi dut aldentzen instant batean. Bihotza kuzkurtu egin zait.

Bere munduaren jabe da orain. Oinen artean du lurra eta bere oreka izate hauskorren arteko ardatzaren agintea. Oreak, direnak eta ez direnak egin beharko ditu aurrerantzean, amalurraren grabitateari gure abiadura gehitzen diogunean premiazko gelditzearen amiltzeak ekar dakigukun larritasuna ekiditzeko.

Laur urte eman ditut bere ostean, bizkartzain lanetan. Zortzi gurpileko Maclarenari bultzaka. Olentzerok ekarritako Orbea gorri distiratsuari erantsi nizkion bi gurpil txikiak bart erantzi nizkion. Gaur bi gurpilen atzetik nabil. Bata bestearen atzean doazenak. Eta atzetik nabilkio etorri zenetik. Bere izatea babestu nahi duen aingeru guardakoaren itzala banintz bezala. Aita izatea zer den. Eta guztiaz, lau pedal kolpetan jabetu naiz. Ez duela nire premiarik izango, bere kabuz munduaren jirabiran sartuko dela laster, laster.

Eta korrika arindu dut, bere albora gerturatuaz. Besoa bere gerri ostean ezkutatu dut, askatu dudarik konturatu ez dadin. Beti gogoratuko dudala dakidan une iheskor batez elkarri begietara behatuz, esan egin diot:

- Zeu bakarrik zoaz, zeu bakarrik bihotza!

Izua. Izu aurpegiarekin buelta erdi azkar batean berriz begitaru dit eta beldurtuta, oihuka hasi da.

- Eutsi! Eutsi! Eusteko! Ez uzteko!

- Bai, lasai bai.

Eskuin eskuarekin eutsi diot zelatxoari eta arnas estuka abiada moteltzeko eskatu diot. Gelditu denean, oinak lurrean, bizikletatik urrunduz, zergatik askatu dudan aurpegiratu dit.

- Badakidalako mutil handia zarela eta zeu bakarrik ibiltzeko gai zarela.

Dena aldatu da berarentzako. Eta niretzako ere bai. Beste norbait da jada. Norbait gehiago. Nigandik errazago urundu daitekeena. Eta niri bihotza kuzkurtu zaidan bezala, orain berari paparra puzten ari zaio. Eta paparra puztu zaionean okotzak, bere okotz zorrotz txiki politak ere gora egin du.

Bizikletara hurbildu eta behegainenetik jaso du. Ezer esan gabe, buelta erdi emanaz etxerako norabidea hartu du. Halako batean, atzera begiratu, eta benga aita esan dit, irribarre ederra eskainita,.

- Goazen etxera. Amari bizikletan, bi gurpilekin, neu bakarrik, handiek bezala, ibiltzen dakidala esan behar diot.

Otsan, baina neu ere harro, bere atzetik abiatu naiz isilik. Badakit zer utzi dugun atzean.